Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

ERABAKIA, 2019ko urtarrilaren 2koa, Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorearena, unibertsitateko irakasle funtzionarioen plazak betetzeko lehiaketetan onartutako eta kanporatutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratzeko dena.

Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2019ko urriaren 16ko Erabakiaren bidez deia egin ondoren unibertsitateko katedradunen plazak betetzeko (2018/11/02ko BOE eta 2018/10/29ko EHAA), eta amaituta onartutako eta kanporatutako behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea (deialdiko 4.1. oinarrian zehaztutakoa), errektoreak ondokoa erabaki du:

Lehena.- Onestea lehiakide onartuen eta kanporatuen behin betiko zerrenda. Zerrenda Leioako Errektoregoko Deialdi eta Lehiaketen Ataleko iragarki oholean eta campusetako errektoreordetzetakoetan ikus daiteke, bai eta unibertsitatearen web orrian ere: http://www.ehu.eus/ (Irakasleak- Deialdi bideratuak).

Bigarrena.- Argitara ematea erabaki honen eranskin moduan agertzen den lehiakide onartuen eta kanporatuen behin betiko zerrenda. Bertan adieraziko da baita ere zein izan den kanporatzearen arrazoia.

Hirugarrena.- Erabaki hau izapide egintza kualifikatua da eta bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke UPV/EHUko errektoreari, erabakia web-gunean argitaratu eta hilabeteko epearen barruan, urriaren 1eko Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean (123. artikulua eta hurrengoak), adierazten den moduan; edo, bestela, zuzenean aurka egin dakioke administrazioarekiko auzien Bilboko epaitegian (zerbitzu harremana sortzeari buruzkoa ez bada), edo Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan (zerbitzu harremana sortzeari buruzkoa bada).

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Leioa, 2019ko urtarrilaren 2a.

Eskumena eskuordetuta (Erabakia, 2017ko urtarrilaren 25ekoa, errektorearena, 3017/02/03ko EHAA), Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea.

Izpta.: Inmaculada Guerricagoitia Marina

LEHIAKETARA ATERATAKO PLAZEN DATUAK:

Plazaren zenbakia: 1. Kodea: CUVC6/1-D00083-1. Kidegoa: Unibertsitateko katedradunak (lotutako lanpostua). Jakintza arloa: "Otorrinolaringologia". Medikuntza espezialitatea: "Otorrinolaringologia". Saila: Dermatologia, Oftalmologia eta Otorrinolaringologia. Ikastegia: Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Basurtuko Medikuntzako irakas-gunea). Hizkuntz eskakizuna: Elebiduna. Arduraldia: osoa.

ONARTUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA:
Deiturak eta izena: Francisco Santaolalla Montoya
NAN: **54*26**

KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA: Bat ere ez

Plazaren zenbakia: 2. Kodea: CUVC6/1-D00084-4. Kidegoa: Unibertsitateko katedradunak (lotutako lanpostua). Jakintza arloa: "Medikuntza". Medikuntza espezialitatea: "Digestiboa". Saila: Medikuntza. Ikastegia: Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Donostiako Medikuntza irakas-gunea). Hizkuntz eskakizuna: Ez-elebiduna. Arduraldia: osoa. Egin beharreko irakaslanak eta ikerlanak: "Patologia eta Klinika Medikoa I" eta "Gidaritzapeko Praktika Txandakatuak".

ONARTUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA:
Deiturak eta izena: Luis Bujanda Fernandez de Pierola
NAN: 16***7*2*

KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA: Bat ere ez